


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2003ko ABENDUA

Euskal AEko industri jarduera %3,9 hazi zen 2003ko abenduan

Datu horiekin, Industri Produkzioaren Indize Orokorra %1,2 hazi da 2003an.

2003ko abenduan, EUSTATEk landutako datuen arabera, %3,9 hazi zen Euskal AEko industri jarduera balio absolututan, 2002ko hil beraren aldean. Lan-egutegiaren balio homogeneotan neurtuta, urte arteko aldakuntza %0,2koa izan da, 2003ko abenduak 2002koak baino lanegun bat gehiago izan duelako. 2003 osoko hazkunde-tasa metatuak, aurreko urtearen aldean, %1,2ko hazkundeak izan du balio absolututan neurtuta eta %0,7koa lan-egutegiaren balio homogeneotan neurtuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1998-2003



Iturria: EUSTAT

2003ko abenduan, urte arteko aldakuntzarik positiboak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zaizkie: *kautxua eta plastikoa* (%17,9), *garraio-materiala* (%12,8), *kimika-industria* (%11,8), *material elektrikoa* (%7,5) eta *metalgintza eta metalezko gaiak* (%6,9) arloei, besteak beste.

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan dituzte: *ehungintza eta jantzigintza* (%-49,1), *larruaren eta oinetakoaren industria* (%-11,7), *zurgintza* (%-8,0), *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%-7,7), *makineria* (%-5,8) eta *bestelako enfabrikaturak* (%-4,2) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2003ko abenduan, igo egin dira *bitarteko ondasunen* (%7,5) eta *kontsumo-ondasunen* (%2,6) urte arteko tasak, baina jaitsi egin da *ekipo-ondasunen* (%-3,1) tasa.

2003ko urteko balantzea

Industri Produkzioaren Indize Orokorren tasa metatuaren %1,2ko gehikuntzarekin itxi da 2003ko urteko balantzea, aurreko urtearen aldean. Datuak balio homogeneotan neurtu ahal izateko lan-egutegiaren eragina zuzenduta, 2003ko hazkunde metatua %0,7koa izan da.

2003 guztian, hazkunde metatu handienak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zaizkie: *petrolio fintzea* (%21,4), *kautxua eta plastikoa* (%7,1), *material elektrikoa* (%6,4) eta *kimika-industria* (%2,9) arloei, besteak beste. Tasa metaturik negatiboenak, berriz, honako hauek izan dituzte: *larruaren eta oinetakoen industria* (%-14,7), *bestelako manufakturak* (%-4,7), *zurgintza* (%-3,7) eta *makineria* (%-1,2) arloek, batik bat.

2003an metatutako aldakuntzak hazkundera izan du *bitarteko ondasunetan* (%2,1), baina *kontsumo-ondasunak* eta *ekipo-ondasunak* %1,6 eta %1,3 jaitsi dira, hurrenez hurren.

2003ko balantzean lurralde bakoitzaren joera desberdina izan da, hiruretan positiboa izan bada ere: Gipuzkoan %2,1 hazi da, Araban %1,2 eta Bizkaian, %0,5.

Taula: 2003ko ABENDUA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Aurreko urteko hil beraren aldean		2002ko urtarril-abenduko tasa metatua		2003ko urtarril-abenduko tasa metatua	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	3,9	0,2	-1,1	-1,2	1,2	0,7
Araba	13,9	9,6	0,3	0,2	1,2	0,6
Bizkaia	-0,4	-3,8	-0,3	-0,4	0,5	0,0
Gipuzkoa	3,6	-0,2	-2,6	-2,7	2,1	1,4
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE						
Bitarteko ondasunak	7,5	4,4	0,5	0,4	2,1	1,6
Kontsumo-ondasunak	2,6	-1,4	0,3	0,3	-1,6	-2,2
Ekipo-ondasunak	-3,1	-7,6	-2,1	-2,3	-1,3	-2,1

(*) lanegunez zuzendua

Iturria: Eustat

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tlf:+34-945-01 75 14 Faxa+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es